Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzordeak aho batez erakunde adierazpen hau onartu du:

1.- Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzordeak gaitzetsi egiten ditu Marokoko Gobernuak saharar herritarren kontra egindako indarkeria ekintzak, eta elkartasuna adierazten dio saharar herriari.

2.- Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzordeak gaitzetsi egiten du Marokoko armadak El Aaiungo kanpamendu zibilen kontra egindako eraso militar gogorraren ondorioz saharar zibilak hiltzea, eta bat egiten du eraso horren biktimekin eta haien gertukoekin. Era berean barru-barrutik deitoratzen du liskarretan hildako polizia marokoarren heriotza.

3.- Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzordeak salatu egiten du Marokoko Gobernuaren jokaera; izan ere, gobernu horrek galarazi egin du Europako Parlamentuko, Eusko Legebiltzarreko nahiz Nafarroako Parlamentuko kideak, eta baita kazetariak eta nazioarteko begiraleak ere, Sahara Mendebaldeko lurralde okupatuetara sar zitezen.

4.- Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzordeak berretsi egiten du saharar herria sufritzen ari den egoera salatzeko eta haien eskubide zibil eta politikoak aldarrikatzeko hartu

La Comisión de Derechos Humanos del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián ha aprobado por unanimidad la siguiente Declaración Institucional:

1.- La Comisión de Derechos Humanos del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián condena los actos de violencia del Gobierno de Marruecos sobre la población saharaui, a la que muestra su solidaridad y apoyo.

2.- La Comisión de Derechos Humanos del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián condena la muerte de civiles saharauis, consecuencia del violento ataque militar del ejército marroquí sobre los campamentos de civiles en El Aaiun, y se solidariza con las víctimas de ese ataque y con sus allegados. Asimismo, lamenta profundamente la muerte de policías marroquíes ocurrida en el curso de los enfrentamientos.

3.- La Comisión de Derechos Humanos del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián denuncia la actitud del Gobierno de Marruecos de impedir el acceso de los miembros del Parlamento Europeo, del Parlamento de la Comunidad Autónoma Vasca y del Parlamento de Navarra a los territorios ocupados del Sahara Occidental, así como de periodistas y observadoras/es internacionales.

4.- La Comisión de Derechos Humanos del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián reitera su compromiso en la denuncia de la situación que sufre el pueblo saharaui

zuen konpromisoa.

y la reivindicación de sus derechos civiles y políticos.

5.- Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzordeak kezka adierazten du Marokoko polizia eta armada indarren presioak Mendebaldeko Saharan eragiten duen Giza Eskubideen urraketa dela eta.

5.- La Comisión de Derechos Humanos del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián manifiesta su preocupación ante las violaciones de Derechos Humanos que causa la presión de las fuerzas policiales y militares de Marruecos en el Sahara Occidental.

6.- Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzordeak Nazio Batuei eskatzen die saharar herritarren Giza Eskubideak babesteko ahalmena eman diezaiotela MINURSOri. Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzordeak exijitzen du, orobat, interposizio indarra egin dezala Mendebaldeko Saharako Erreferendumerako Nazio Batuen Misio horrek gertakari hauetan.

6.- La Comisión de Derechos Humanos del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián requiere a Naciones Unidas que dote a la MINURSO de la potestad de salvaguardar los Derechos Humanos de la población saharaui. La Comisión de Derechos Humanos del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián exige además, que la MINURSO (Misión de las Naciones Unidas para el referéndum del Sahara Occidental), ejerza de fuerza de interposición ante estos acontecimientos.

7.- Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzordeak Espainiako Gobernuari eta gainerako erakunde guztiei eskatzen die jarrera garantista eta zelatari bat izan dezatela Mendebaldeko Saharako Giza Eskubideen bortxaketen aurrean, eta Gdeym Izik-eko kanpamenduen kontrako bortxazko oldartzea eta ondoren El Aaiunen izandako istiluak bukatzeko behar diren diplomazia lanak areagotu ditzatela, beste biktimarik izan ez dadin.

7.- La Comisión de Derechos Humanos del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián insta al gobierno español y al conjunto de instituciones a mantener una postura garantista y vigilante ante las violaciones de derechos humanos en el Sahara Occidental, y a intensificar las labores diplomáticas que sean necesarias para poner fin al asalto violento contra el campamento Gdeym Izik y a los posteriores incidentes del Aaiun, de forma que se eviten nuevas víctimas.

8.- Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzordeak adierazten du

8.- La Comisión de Derechos Humanos del Ayuntamiento de

nazioarteko begiraleak beti egon behar direla, kendu gabe, lurralde okupatuetan, eta Giza Eskubideen bortxaketak salatzen jarraitzera animatu nahi ditu gizarte zibila, erakundeak eta kargudunak.

Donostia-San Sebastián manifiesta la necesidad de mantener observadores internacionales permanentemente en los territorios ocupados y anima tanto a la sociedad civil como a organizaciones y cargos institucionales a seguir en la denuncia de las violaciones de los derechos humanos.

9.- Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzordeak berretsi egiten du saharar herriaren autodeterminazio eskubidea, Nazio Batuen Elkartean adostutako baldintzetan.

9.- La Comisión de Derechos Humanos del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián reafirma el derecho de autodeterminación del pueblo saharaui en los términos acordados por la ONU.

10.- Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzordeak Espainiako Gobernuari eskatzen dio dagokion papera hartu eta auzia konpontzeko prozesua babestu dezala Nazio Batuen esparruan.

10.- La Comisión de Derechos Humanos del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián solicita al Gobierno de España que tome el papel que le corresponde y apoye el proceso de resolución del conflicto en el marco de Naciones Unidas.

11.- Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzordeak Euskadin eta Estatuan gertakari hauek direla eta antolatzen diren gaitzespen ekintzetan parte hartzera animatu nahi ditu herritarrak eta erakundeak.

11.- La Comisión de Derechos Humanos del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián anima a la ciudadanía e instituciones a participar en los actos de repulsa por estos hechos que se vayan a convocar en Euskadi y en el Estado.

Donostian, 2010eko azaroaren 10ean

En Donostia-San Sebastián, a 10 de noviembre de 2010